

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEAREN ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Nekazaritza Eremuaren Zerbitzua

Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan 2021ean egiten diren obrak finantzatzera zuzendutako dirulaguntzak ematea

2021eko maiatzaren 28an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan 2021ean egiten diren obrak finantzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan eta aipatutako deialdiaren berariazko oinarrietan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

I. AURREKARIAK

Lehena. Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 5ean egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan 2021ean egiten diren obrak finantzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia eta berariazko oinarriak.

Deialdia eta berariazko oinarriak 2021eko martxoaren 24ko ALHAOn (33. zk) argitaratu ziren.

Bigarrena. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, honako 16 menpeko toki-erakundeek aurkeztu dituzte: Aberasturi, Andetxa, Arkaia, Arkauti, Berroztegieta, Ehari, Elorriaga, Estarroatza, Foronda, Gaztelu, Martioda, Mendiola, Mendoza, Monasterioguren, Otogoien eta Zerio.

Guztiek betetzen dute dirulaguntzaren onuradun izateko gaitasun-betekizuna, deialdiaren 2.1 oinarrian adierazitakoari jarraiki, Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeak baitira.

Hirugarrena. Deialdiaren 10. oinarriari jarraiki eraturako batzorde teknikoak balorazio-txosten teknikoa eta ebazpen-proposamena egin ditu. 2021eko maiatzaren 4ko bilkuran aktan jaso da, eta dosierrari erantsi zaio.

Bertan proposatzen da 15 eskatzaileri dirulaguntza ematea, eta Mendozako menpeko toki erakundeak plaza konpontzeko egindako eskabidea ezestea, 3. oinarriaren arabera ez baita dirulaguntzaren xede.

Onuradunak entitate publikoak direnez, deialdiaren 2. oinarriak salbuetsi egiten ditu zerga-betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak betetzen dituztela egiaztatetik.

Laugarrena. 40.000 euroko aurrekontu-zuzkidura dago, 2021eko udal-aurrekontuaren 2021/02.18.1749.78919 partidaren kontura.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehena. Aplikagarri dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta Gasteizko Dirulaguntzei buruzko 2005eko ekainaren 17ko udal ordenantza (2006/01/13ko ALHAO, 5. zk).

Halaber, aplikagarri da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

Bigarrena. Norgehiagoka baliatuko da dirulaguntzak emateko prozedura gisa.

Horrenbestez. Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127.1 g) artikularekin bat, eta 2019ko ekainaren 21eko alkatearen dekretuak bere gain utzitako aginpidea dela medio, Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko zinegotzi ordezkariak honako erabaki proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

ERABAKI-PROPOSAMENA

Lehena. Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan 2021ean egiten diren obrak finantzatzera zuzendutako dirulaguntzak ematea onestea, adierazitako zenbatekoan, guztira 40.000 euro, 2021eko udal aurrekontuko 2021/02.18.1749.78919 partidaren kontura.

ONURADUNA	AURREKONTUA	ZENBATEKOA DIRULAGUNTZA	AURREKONTUKO OBRAK
Aberasturi	15.724,90	2.897,00	Sukaldeko ekipamendua eta pellet berogailua jartzea zentro sozialean.
Antezana/Andetxa	24.061,75	4.434,00	Erabilera anitzetarako zentroko teilatua eraberritzea.
Arkaia	7.637,52	1.407,00	Pellet berogailua jartzea zentro sozialean.
Arkauti/Arcaute	13.552,00	2.497,00	Jolasguneak eraikitzea
Berrostegieta	6.100,41	1.124,00	Sabai rigitone akustikoa jartzea.
Castillo/Gaztelu	34.220,30	6.305,00	Bolatokia eraberritzea.
Ehari/Ali	10.121,65	1.865,00	Hilerriko harresia eraberritzea
Elorriaga	4.847,57	893,00	Zentro sozialeko altzariak.
Estarrona	1.625,51	300,00	Hilerriko atea fabrikatu eta muntatzea.
Foronda	25.346,17	4.670,00	Garbitokia eraberritzea.
Martioda	20.248,86	3.731,00	Zentro sozialeko altzariak eta ekipamendua.
Mendiola	6.933,30	1.277,00	Txokoko leihoak konpontzea
Monasterioguren	10.856,94	2.000,00	Zabuak aldatzea
Otogoien/ Hueto Ariba	12.563,89	2.315,00	Txokoa egokitu eta ekipatzea
Zerio	23.255,25	4.285,00	Zentro soziala ekipatzea
TOTAL	222.245,66	40.000,00	

Bigarrena. Ezestea Mendozako menpeko toki-erakundeak plaza konpontzeko egindako eskabidea, ez bita deialdiaren xede, 2021ean Gasteizko udalerriko menpeko toki-erakundeen jabegoko ekipamenduetan egindako obrak finantzatzeko dirulaguntza-deialdi publikoaren 3. oinarrian ezarritakoaren ildotik.

Hirugarrena. Dirulaguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, 2021eko udalaren aurrekontuko 2021/02.18.1749.78919 partidaren kontura, gastuak justifikatu eta deialdiaren 13. oinarrian xedatutakoa bete ondoren.

Laugarrena. Ebazpen hau Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean, ALHAOn, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa eta www.vitoria-gasteiz.org web-orrian argitaratzeko agintzea.

Bosgarrena. Erabakiaren aurka honakoak aurkez daitezke:

a) Aukeran, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

b) Zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 4an

Nekazaritza Eremuko Zerbitzuko burua
MÓNICA IBARRONDO PORTILLA